

Aretxagazeta

kz mikroenpresak prestakuntza
Ikasi erantzuten zure enpresaren eguneroko gorabehereri o

home > zentro KZguneak > Deba Garaia > ARETXABALETA

Aretxabaleta ko KZgunea > Aretxabaleta

Helbidea: **Markole Auzoa, 6
ARETXABALETA
(GIPUZKOA)**

Telefonoa: **943799444**

e-mail: **tutor.aretxabaleta@kzgunea.net**

Ordutegia:
Astelehenetik Ostrirera 9/13 eta 16/20 ordu
ordutegia zida dateke, betiere proiektuaren
premier arabera

KZGUNEAK URTEBETE IKASTAROAK, ZERBITZUAK ETA NABIGATZEKO AUKERA

Aretxabaletako Udala

Udalerriz udalerriz dauden KZguneak Deba Garaia

Udalerririk KZ zentroarekin
KZ zentrorik
gabe

Plaza libreak: ✓
E Finantza erak-rekin lan egin 2
Data: 04/03/31 - 04/03/31
Ordutegia: Asteazkena 11:00etatik-13:00etara
Plaza libreak: ✓
Internet KZgunea Kurtso

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Izartu programan sartu gura dute /08

HUHEZI
Eskaintza akademiko berria /09

LEINTZ GATZAGA
Labidea eta Turismo Bulegoak urtebete /10

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11
UDALZAINGOA	
Arrasate	943 79 14 39
LARRIALDIK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 27
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 28
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

OHARRAK


ELIZBARRUTIKO IBILALDIRAKO TXARTELAK SALGAI
Garizuma bukaeran, apirilaren 3an hain zuzen, elizbarrutiko ibilaldia egingo dute Arantzazura. Joan gura dutenek salgai dituzte txartelak sakristian 8 euroren truke.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA
Murruxiko Mendizale Elkarteak irteera antolatuko du. Apirilaren 4an izango da. Nafarroako Aralar mendi inguruetan egingo dute lehenengo mendi ibilaldia, eta Goierri inguruko sagardotegira joango dira gero bazkaltzera. Joan gura duena Murruxiko lokaletik pasa dadila izena ematera martitzenean 19:00etatik aurrera.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN


Gregoriano taldea Estatu Batuetara joan zen

Aretxabaletako eta Gasteizko abeslariak osatu zuten gregoriano taldea 1996ko martxoaren 27an atera zen AEBetarantz. Ibilaldia egin zuten han: Chicago, Washington, Baltimore, Philadelphia, New York eta beste hainbat herri. Ez ziren bakarrik joan, emazteak lagundu zieten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Surzillo"



Sudurzillo.
— *Surduzuloak pe esaten dok, surzuloak.*

GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

DVD berrien zerrenda

DVD bideo berriak erosi ditugu liburutegian. Zuri-beltzeko film klasikoak dira, ingelesez edo gaztelaniaz ikusteko aukera ematen dutenak. Liburutegian bertan ezin dira ikusi, baina etxera eramane daitezke maileguz astebeteko epean bueltatzeko. Orain arte titulu hauek daude:


- 'El extraño' / Orson Welles
- 'Ha nacido una estrella' / William A. Wellman
- '¡Qué bello es vivir!' / Frank Capra
- 'El acorazado Potemkin' / Serguei Mijailovich Eisenstein
- 'La noche de los muertos vivientes' / George A. Romero.
- 'Las nieves del Kilimanjaro' / Henry King
- 'El hombre del brazo de oro' / Otto Preminger
- 'El padre es abuelo' / Vincente Minelli
- 'El extraño amor de Martha Ivers' / Lewis Milestone
- 'La tienda de los horrores' / Roger Corman
- 'El maquinista de la general' / Buster Keaton
- 'Charada' / Stanley Donen

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA


ZORIONAGURRAK




ESKORIATZA
Maddalen Antuñano
13an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Aitor Antuñano
23an, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jose Benito Ayastuy
21ean. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA
Jesus Arroabe
23an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Amaia Irure
24an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Gorka Zumalde
24an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Julen Arriola
25ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ibon Altube
28an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Maite Carriet
29an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jon Ander Galdos
30ean, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Nagore Beloki
30ean, 11 urte. Zorionak eta muxu bat, gurasoen eta ahizparen partetik.



ARETXABALETA
Miriam Urkia
31an. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Goretti Aiaustui
1ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karneteak argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LEIBAR

arrandegia

Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33

Mitarte kalea 1
Tel.: 943 77 13 79

Aretxabaleta

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79


Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43


ATREBENTZIAEZPADA/ Ordue aldatu biher da zapatuen. Igerten dozu eguneroko bizitzan?




NATI ARKAUZ
Jubilaue



JABIER URIARTE
Langillie



JUANI PAVON
Langillie



JOXE OLABE
Jubilaue



KARMELE GARCIA
Langillie



AITOR GARAI
Langillie

Ez, baiñe ez jat bape gustetan zapatuko kanbixo hori; izen be, ohera ixte egun argiz fan biher izengo gare. Ez dakit nik ezer aurreraketan dogun energixiei eta diruei dagokixenez.

Ez, bapez; bost errelebotan lan egiten ohittute nau, eta ordu aldaketiek ez dust eragitten. Eguraldi aldaketiei berai be ez dutzet igerten; aldaketa danak datozen moduen hartzen dittut.


Bai, lelengo astien eta denpora gehixauen be igerten dutzet. Aurreratu egitten dogule... Neri behintzet faktura iguela etorten jat. Argixe gabien ixotu biherrien goixien ixoketan dogu.

Ez, bapez, baiñe ni ez naz aldaketien aldekie. Oingo moduen jarraitu biherko geukela pentsetan dot. Milloiek aurreraketan diela esaten daue, baiñe nere poltsikora ez die aillegetan.

Zeozer iguel, baiñe ez larregi; hala eta be, beti da hoba atzeraketie. Nik ez dakit, baiñe dirue aurreraketan dala esaten daue, eta aldaketie egitten badogu zeozergaittik izengo da.

Ez, nik neuk ez dutzet igerten, berdin-berdin ibiltten naz. Nik uste dot aurreraketan dogule bai energixan, bai diruten; hortan, ondo pentsetan jat ordu aldaketak egittie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK 'GOIENKARIA' GURA BADUZU, ESKATU Azken hila-beteotan etiketa barik banatzen dute *Goienkaria*. Banatzaileei lana errazteko kendu diote, baina horrek ez du esan gura aldizkariet jaberik ez dutenik. Hortaz, ez hartu besteen postontzitik. Ostiraltan banatzen duten *Goienkaria* doan da, eskatu besterik ez duzu, eta *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidetza 25 euro da. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

KZGuneak urtebete

Martxoaren 28an inauguratu zuten KZGunea. Urtebete pasatu da, eta herritar ugari hurrerutzen da.

ASTEAN BEHIN /05

Iban Vaz diseinatzailea

Desfilea izan zuen atzo, Gasteizen, Iban Vaz diseinatzaile aretxabaletar gazteak.

KIROLAK /06

UDaren batzar orokorra

Ohiko batzar orokorra egingo du UDAk egueanean, apirilak 1. Zuzendaritza berriak egin du deialdia.

ASTEKODATUA

155

BIZILAGUN IZANGO DITU BEROAKO EGOITZAK

Beroa lantegia egon zen lekuan etxebizitzak egiten dabil Gasteizko enpresa eraikitzaile bat. Abenduan emango dituzte lehenengo etxebizitzak; guztira 155 bizilagun izango ditu bizilekuak.

BESTEKEESANA

“ Britainiara heltzerakoan hasieran beldur apur bat geneukan nolako jendea izango ote zen, gure etxeokoa

nolakoak izango ote ziren, eta nora ote gindoazen. Azken baten non lo egin behar genuen jakin barik gindoazen, nola hartuko gintuzten ez genekien, baina gero ondo.

Hasieran hala-hola moldatu ginen frantsesarekin, eta gero hobeto. Hala ere, Bresteko ikasleek nahiko ondo egiten zuten berba gaztelaraz; euren esanetan, astean bost bat aldiz ematen zuten gaztelera ikasgaia. Guk frantsesaz baino hobeto egiten zuten eurek gaztelaraz. 32 ikasle eta irakasle bi joan ginen hemendik. Brest eta Kemperren egon ginen, Britainiako hiri bi dira. Orain 47 ikasle etorriko dira handik.

MAIALEN AKIZU
Arrasate Irratia/04-03-24

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Aldaketa

U dabarrire sartu garen hilen aldaketa asko jazo die gurien, kolore danetakuek. Neguko atie giltziaz itxi eta zabaldu dou udabarrikue, nahiz eta ondio egualdixek printza askorik erakutsi ez. Egun batetik bestera aldaketan da Kurtzebarrin itxurie, batien zuri eta hurrenguen berde. Matur batetik bestera.

Barrixen daukoun aldaketarik haundixenak martxuen 11tik atzerakuek izen die. Orduetik majo aldatu da hamengo panoramie. Haste-ko eta behin, Madrileko atentauen hil zien 200 pertsonak, hurrengo egunien Polizia Nazionalak (Ordona publikoa zainketie helburu dauken estatuko segurtasungorputzez osatuteko erakundie) hil euen Angel. 24 ordure, Hernanin hil zan Kontxi, manifan Ertzainek (EAEko polizi erakundeko kидie) kargau ostien

bihotzekuek emunde. Danok zaze geure goguen.

Tartien baine, gobernu aldaketie egon da, PPTik PSOera. Ondio gox da balorazinuek eiten ekiteko, baine laster ikusiko dutzau ZPri be txantxarra zein aldetara igoten jakon.

Bukaketako, Aste Santuen Itsasondok emungo dauen metamorfosixe itzela izengo da. Gaztiek herrixe aldaketie gure daue, eta hortarako Gazte Topagunie antolatu daue

honen lemionen peien: Gu gera herria, egin dezagun bidea. Ekitaldi ezberdinez jositako lau egun antolatu daue: hitzaldixek, kontzertuek, tailerrak... Herri txiki izetetik, herri haundi eta gaztion topaleku izetera pasauko da egun santuetan. Ia ba bide artezetik jotzen dozuen aldaketa egokixen atzetik, eta zuein izer gorrixek argi eiten dutzuen.

“Gaztiek herrixe aldaketie gure daue, eta hortarako Gazte Topagunie antolatu daue”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagakoko
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Batzarrez batzar

Kontu gutxi dittugu azken aldixen herrixen. Edo nire belarrixetara behintzet ez die asko aillegetan. Gaztiak zeozetan dabitzela entzun dot. Ikusi be bai, kalien jarten dittue-eta batzarretarako deialdixek. San Jose zubixen egin euien bat, eta entzun dotenez gazte asko batu zien, 50 inguru bai behintzet. Ez dau txarto. Ia martxa apur bat jarten dotzien herrixei, eta gaztiak badie sortzailiek askoz hobeto.

Beste batzar bat be aittetu gure dotzuet UDak egin biher dau-eta datorren astien. Batzorde-rako jentie biher daue, boluntarixuek, eta ezin topaute dabitz. Ekaiñien itxi egingo dauielan esan daue, eta oinguen serixo esaten ei daue. Pena izengo litzake gero, hainbeste urtien martxan egon dan elkartie inor barik geldiketie. Emakumiok be honez gero eukiko dou futbol kontuetan zeresanik, ez? Nik, neuk, asko ez dakit, onartzen dot; baiñe badakit herrixen futbolan gaiñien asko dakixiela batzuk. Ia poliki-poliki animetan dien...

Batzarrez batzar goiez gaur. Beste batzar bat be badau-eta datorren astien. Beroa lantegixe egon zan lekuen etxebizitzak erositte daukien bizilagunek egin biher daue azken hau. Ez daz bape konforme enpresa eraikitzaillie egitten dabilenaz, eta zein neurri hartu komentauko daue. Hurrengo egubakoitzien izengo da hori, kultura etxien. Zeuk be etxie baldin badaukotzu hor, badakitzu nora jo.

Bukaketako astien ETB-2ko *Date el bote* programan egon dan aretxabaletar bat ekarriko dou gogora: Lourdes Alvarez. Finalera iritsi zan, baiñe azkenien diru usaiñekin bueltau biher...

M. J. Aretxaga

KZGUNEA/ Interneten nabigatzen erakusten duten ikastaroez gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte KZGunean

Orain urtebete zabaldu zuten KZGuneako bulegoa, eta herritar ugari hurreratu da ordutik hona

MIRARI ALTUBE

Urtebete egingo du domekan KZGunea inauguratu zela. Ordutik hona herritar ugari pasatu da bertatik, bai ikastaroetan parte hartzeko, bai euren kabuz Interneten nabigatzeko. Erretiratuak, etxeoandreak, langabeak... Denetariño erabiltzaileak ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri gehienetan bezala gurean ere badaukagu KZGunea. Orain urtebete jarri zuten abian, eta ordutik gero herritar ugari hurreratu da Markoleko bulegora.


HIRU ERATAKO IKASTAROA

Amaia Azarloza eta Aitor Madrid dira Aretxabaletako KZGuneako arduradunak. Bulegora doanari harrera egin eta ikastaroen berri ematen diote. Hiru eratako ikastaroak ematen dituzte: Interneteko oinarritzko ezagutzen berri ematen dute 20 orduko ikastaroan; ordenagailua eta Internet erretiratuei ezagutarazteko 10 orduko ikastaroa; eta ordubete, bi ordu edo lau orduko iraupena duten mintegi egokituak.

Amaia Azarlozaren esanetan, 40 eta 50 urte inguruko jendeak hartzen du parte gehien ikastaroetan: bai etxeoandreak, bai langileak, bai langabeak. "Zenbat eta nagusiagoa izan orduan eta errespetu handiagoa dio ordenagailuari, horregatik antolatzen dugu erretiratuendako bakarrik gertatutako ikastaroa", dio Amaiak.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Ikastaroez gain beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte KZGunean. Batetik, web orriak egiten laguntzen diete elkarteei; hala, orain hilabete batzuk Loramendi EEren webgunea diseinatu zuten, eta datorren hilean herriko beste elkarte bati egingo diote eskaintza. Elkarteek eurek ere eska dezakete zerbitzu hori.



11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara ematen dituzte ikastaroak Markole kalean dagoen bulegoan.

40 eta 50 urte inguruko jendeak hartzen du parte gehien KZGuneako ikastaroetan

Bestetik, IT txartela ateratzeko aukera ematen dute KZGuneako bulegoetan. Informazio Teknologien Erabiltzailearen Ziurtagiria da, hau da, informazioaren teknologien oinarritzko ezaupideak egiaztatzen dituen txartela,

Web orriak egiten laguntzen dute; hala, Loramendi EEren webgunea diseinatu zuten

eta azterketa bat gainditu behar da jasotzeko. Azterketa KZGuneako bulegoan bertan egin daiteke. Ikastaroez eta zerbitzuez gain Interneten nabigatzeko bost ordenagailu daude Markole kaleko bulegoan. Hori bai, ezin da txarta-

IT txartela ateratzeko aukera ematen dute KZGuneako bulegoetan

teatu, ezta webguneetan jolastu ere, eta webgune arrazista, xenofobo eta pornografikoetan ibiltzea ere debekatuta dago. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean 16 urtetik gorako edozein joan daiteke.



Kendu dute garabia herriko plazako eraikinetik

Poliki-poliki aurrera doaz herriko plazan dagoen eraikina berritzeko lanak. Hala, astelehenean garabia kendu zuten, eta zeukan tamaina kontuan hartuta nahikoa lan izan zuten kendu eta eramaten. Aurrealdea konpondutakoan, ostera, plazan dagoen egurrezko harresia kenduko dute. Irailean hasiko dira Kurtebarri eskolako irakasleak DBHko eskolak ematen. /M.A.

ELKARRIZKETA

IVAN VAZ/DISEINATZAILEA

“Hinduen kultura izan dut gogoan desfile honetako arropa diseinatzeko orduan”

M.A.

Atzo, eguena, desfilea izan zuen Iban Vaz diseinatzaile aretxabaletarrak Gasteizen. Hiriko merkatarien elkarteak antolatu zuen ekitaldia, eta diseinatzaile berriei eman zien aukera euren diseinuen berri emateko.

Nolako arropak diseinatu dituzu atzoko desfilerako?

Urre-koloreko ehunekin, satinekin eta orokorrean oihal distiratsuekin egindako arropak aurkeztu ditut.

Aurreko desfilean Prestige-ren hondamendia hartu zenuen oinarri. Oraingoan zer izan duzu gogoan?

Hinduen kultura izan dut gogoan desfile honetarako arropa diseinatzeko orduan.

Arrazoiren bat izan duzu?

Ez, ez dut izan arrazoi berezirik; horixe etorri zitzaidan gogora, eta kito. Edozein gauzak, edozein gogoetak balio dit diseinurako ideia hartzeko.

Lehenengo desfilea 2002. urtean aurkeztu zenuen. Orduetik hona asko aldatu da zure lan egiteko era?

Bai, dezente. Iaz, uztailetik irailera bitartean Madrilen izan nintzen Devota & Lomba diseinatzaileekin ikasten, eta ordutik

hona gehiago zaintzen ditut nire diseinuak; arropa dotoreagoak egitera jo dudala uste dut.

Madrilgo Cibeles Ibiltokian ere hartu zenuen parte irailean, ez?

Bai, hala da. Lehen esan bezala, Devota & Lomba diseinatzaileek Cibelesen aurkeztu zituzten arropak, eta neuk ere bertan egoteko aukera izan nuen. Ordura arte telebistan neukan ikusia, eta bertan egotea izugarria izan zen.

Aurrera begira zein asmo dituzu?


Oraindik hiru hilabete falta zaizkit ikasketak bukatzeko. Gero, Madrilerako edo Bartzelonara joan gurako nuke lanera. Enpresendako edo desfileetarako egin gurako nuke lan, eta ezin bada ikasten jarraituko nuke. Hori bai, diseinuaren munduan jarraitzeko asmoa daukat.

Zein diseinatzaile duzu gustuko?

Jean Paul Gaultier; gustuko ditut bere arropak, baina ez naiz bere jarraitzaile sutsua.

Zer duzu gurago, emakumeendako arropa diseinatzeko ala gizonezkoendako?

Emakumeendako, dunda barik, era askotako arropak egin daitezkeelako. Mutilen modan ez dago horrenbesteko aukerarik; aldatzen dabil baina oso mantso, ezin daiteke gauza askorik egin.



ARTXIBOA

“Urre-koloreko ehunekin eta satinekin egindako arropak aurkeztu ditut”

“Uztailetik irailera bitartean Devota & Lomba diseinatzaileekin ikasten ibili nintzen”

Gazteriaren gaineko proiektua egin du Loramendi EEK eta astean aurkeztu die Udaleko arduradunei

M.A.

Ezohiko batzarra egin zuen joan zen astean Loramendi Euskara Elkarteak. Zuzendaritza batzordea berritzearekin batera aurrera begira lantzeko egitasmo berria aurkeztu zuten. Gazteriaren gaineko proiektua da, eta atzo Udaleko arduradunei aurkeztu zuten.

Aurreko urteko diru kontuak, aurtengo aurrekontuak eta zuzendaritza batzorde aldaketa izan zituzten berba ezohiko batzarrean. Ez hori bakarrik, egitasmo berria ere aurkeztu zuten.

GAZTERIA PROIEKTUA

Loramendi EEren helburua betidanik izan da Aretxabaletan euskararen alde lan egitea. Hori horrela, 1996an merkataritza laguntzeko saila sortu zuten. Hutsune handia zegoela iruditu zitzaion orduan, eta herriko mer-



ARTXIBOA

Loramendik literatura lehiaketa antolatzen du urtero herriko gazteendako.

katariak poliki-poliki euskararen alde kontzientziatzen hasi ziren. Aurten, 8 urte geroago, ibilbidearen diagnostikoa egin dute,

eta merkatariek ez dutela halako beharrik ikusi dute. Itzulpen zerbitzua lehen bezala eskainiko die, eta merkatarien eskaera guztiak

jasoko dituzte, baina lana bukatutzat eman dute.

Beste hutsune batzuk ditugula herrian ikusi du Loramendi EEK. Hori horrela, gazteriaren gaineko proiektua egiteko eskatu zion Miriam Txintxurretari. Hala egin zuen, eta joan zen aste-ko batzarrean aurkeztu zien batutakoei. Atzo, ostera, Udaleko Euskara Saileko arduradunei aurkeztu zieten Loramendiko arduradunek proiektua.

ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

Zuzendaritza batzorde berria orain hilabete batzuk hasi zen lanean, baina oraindik aldaketa ofiziala egin barik zuten. Hortaz, joan zen aste-ko batzarra aprobetxatu zuten horretarako. Loramendi EEko presidentea Nuria Agirre da, presidenteordea Iker Urkia eta idazkaria Maite Ortiz de Zarate. Diruzaina, lehen bezala, Jasone Gorroñok jarraituko du izaten.

LABUR

Herri Irratiko ‘Herriz herri’ saioa Aretxabaletatik

Herri Irratiko *Herriz herri* saioa Aretxabaletatik egingo dute bihar, zapatua. Hainbat herritarrek egingo dute berba Alberto Gorritibereak aurkeztu duen saioan. 11:00etan hasi eta 12:30ak arte iraungo du.

Pastoral Barrutiko pastoralgileek batzarra egingo dute

Pastoral Barrutiko pastoralgileek batzarra egingo dute zapatuan, 16:00etan, Aretxabaletako parrokiako lokaletan. Eskoriatzako eta Aretxabaletako parrokiako pastoralgileak batuko dira. Liturgiako ospakizunen gainean eta sakramentuak hartzeko prestaketaren gainean egindako hausnarketak aztertuko dituzte.

Euskal jazz izango dugu entzungai gaur Orly tabernan

Loramendi EEK antolatuta Amaraun taldea egongo da gaur, 22:30etan, Orly tabernan. Durango inguruko taldea da, eta euren esanetan, tradizioetik eta sormenetik abiatuta, jazz moldeak erabilia eta inprobisazioak eskaintzen dituen askatasunarekin jositako amarauna da. Oboea dute musika tresna gidaria.

Umeen ohituren gaineko hitzaldia Arizmendiko egoitzan

Arizmendi ikastolak *Haurren begietatik* izeneko hitzaldi zikloa antolatu du Haur Hezikuntzako gurasoendako. Apirilaren lehen eguena, egingo dute hurrengo hitzaldia, eta ohituren garapenaren gainean egingo du berba Gasteizko Jose Felix Aspizua psikologoak. Zerbitzu orokorretako egoitzan izango da, 18:00etan.

Beroako egoitzan etxebizitza dutenek batzarra egingo dute

Beroa lantegia egon zen lekuan etxebizitzak egiten dabil Gasteizko enpresa eraikitzaile bat. Poliki-poliki aurrera doaz etxeok, baina bizilagunak ez daude batere gustora egindako hainbat lanekin. Hori eztabaidatzeko batzarra egingo dute bizilagun guztiek apirilaren 2an, egubakoitza, 18:00etan, kultura etxean.

ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

Batzarra egingo du UDA elkarteak eguenean etorkizuna erabakitzeko

Zuzendaritza batzordea berritzeko ez da inor aurkeztu, eta etorkizun iluna du UDAK

MIRARI ALTUBE

Ez ohiko batzarra egingo du UDA elkarteak eguenean. Urtarrilean ere egin zuen, baina zuzendaritza batzordea berritzeko ez zen inor aurkeztu, eta bigarren saiakera egin gura dute. Batzorde kideak nekaturta daude, eta ekainean utzi egingo dutela iragarri dute.

Urteko bigarren ez ohiko batzarra egingo du Aretxabaleta Kirol Elkarteak eguenean. Zuzendaritza batzordea berritzea dute helburu, baina batzorderako kideak ezin aurkituta dabilta.

JENDEA BEHAR DU UDAK

Guztiz nekaturta dago UDAko zuzendaritza batzordea. Izan ere, hiru lagunengainean dago elkarteko ardura osoa. "Badakigu egueneko batzarrean ere ez dela inor agertuko zuzendaritzarako", dio Rafa Etxeandia batzordeko kideak, "baina gu erabat nekaturta gaude, arazo pertsonal bihurtzen hasi zaigu, eta ekaineko batzar orokorrerako ez badugu ordezkorik ez dugu jarraituko".



ARTXIBOA

Urtarrileko bileran 30 lagun inguru batu ziren etorkizunaren gainean berba egiteko.

Araozari irtenbidea topatu guran batzarra izan dute asteen UDAko arduradunek Udaleko kirol zerbitzuetako arduradunekin. Rafaren esanetan, borondate ona dauka Udalak, baina jendea behar du UDAk momentu honetan, 8 edo 10 lagun beharko lituzke, eta Udalak ezin dio hori eman. Beste herri batzuetan gura-

soak elkartu dira kirol elkarteko ardurak banatu eta aurrera egiteko. Aretxabaletan, oster, herriko mutikoez gain inguruko herrietakoak ere badabilta eta horrek zaildu egiten du arazoaren konponbidea.

Momentuz etorkizun iluna du UDAk, ikusi egin behar zer gertatuko den egueneko batzarrean.

Debarroko Pilota Txapelketa jokatzeko hasi dira Errasti anaiak

M.A.

Hainbat pilota txapelketa jokatzeko dabilta herriko pilotariak. Udaberri torneo oraindik ez dute bukatu, Zaramagako txapelketa erdierdian dabilta eta Debarroko txapelketa hasi dute orain.

Herriko pilotariak txapelketaz txapelketa dabilta azken hilabeteotan. Oion-Urriarte eta Errasti anaiak Udaberri torneo bukatzekotan daude. Ez dabilta batera gaizki, gainera. Lehenengo bikoteak partidu guztiak irabazi ditu, eta oraindik zapatuko par-

tidua falta arren, finalean izango dira seguru asko. Errasti anaiak finalurrekoa jokatu dute zapatu goizean Usurbilen; hori irabaziz gero apirilaren 4an finala izango dute.

Bestalde, Zaramagako txapelketa jokatzeko dabilta Errasti anaiak. Finalurrekoa jokatu dute, hain zuzen, asteen.

DEBARROKO TXAPELKETA

Aipatutako txapelketak bukatu aurretik Debarrokoa hasi dute. Hiru maila daude txapelketa honetan, baina aretxabaletarrek senior mailan bakarrik hartuko dute parte. Errasti anaiak izan-

go dira, hain zuzen, Eskoriatza, Oñati, Bergara, Arrasate, Antzuola, Elgeta, Eibar, Deba eta Elgoibarko bikoteen aurka jokatu dute. Joan zen asteen izan zuten lehen partidua, eta Oñatiko taldea izan bazuten ere aurrez aurre, pilotariak aretxabaletarrek ziren: Altube eta Altzola. Izan ere, bikote honek Oñatiko Aloña-Mendi taldearekin jokatzeko du txapelketa batzuetan; Altube, gainera, Lasagabasterren ordezkari dabil jokatzeko, min hartuta dagoelako azken hori. 22-9 irabazi zieten Errasti anaiak. Hurrengo asteen, Antzuolako bikotea izango dute aurrez aurre.

KARATEA

Erakustaldia egingo du Aretxabaletako karate taldeak zapatu arratsaldean, kirol etxean

Urtero egiten du Aretxabaletako karate taldeak erakustaldia. Guraso eta lagunengainean ikasitakoa erakusteko aukera paregabea izaten dute egun horretan, eta era berean, ikasleek aurrera jarraitzeko indarra hartzen dute Odilo Vazquez irakaslearen esanetan. Erakustaldia, gainera, herritar guztiei dago zabalik; horrela, guztiz ezaguna ez den kirol hori ezagutarazteko asmoarekin.

Aurten 25 ikasle ditu Odilok; 11 urte artekoak 10, eta 12 eta 21 urte artekoak 15. Hauen artean maila gorena duen 18 urteko neska dago. Klub arteko txapelketan parte hartzeko asmoa daukate, eta urte bukaeran Gipuzkoako Txapelketan ere bai. Oraingoan, zapatuko erakustaldia gertatu dute. 18:00etan izango da, kirol etxean.

PATINAJEA

Patinaje ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak apirilaren 24tik ekainaren 5era bitartean

Debagoieneko Kirol Zerbitzuak patinaje ikastaroa antolatu du Aretxabaletako kirol etxean. Zapatuetan emango dituzte eskolak apirilaren 24an hasi eta ekainaren 5a bitartean, eta bi maila egongo dira. Hastapen maila inoiz patinatu ez dutenentzako izango da, eta 10:30etik 12:00etara izango dituzte eskolak. Hobekuntza mailara, oster, patinatze teknika hobetu gura dutenak joango dira, 12:00etatik 13:30era bitartean. Izena emateko 16 urtetik gora izan beharko dute guztiek, eta epea apirilaren 20an itxiko dute. Debagoieneko Kirol Zerbitzuko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek, 24 euro. Informazio gehiago gura izanez gero Aretxabaletako kirol etxera deitu: 943 71 26 28.

XAKEA

Laugarren postuan geratu zen Fran Miguel Durangoko Nazioarteko Xake Txapelketan

Joan zen aste bukaeran Durangoko Nazioarteko Xake Txapelketa jokatu zuten. Aretxabaletatik jokalaria bi hurreratu ziren bertara: Fran Miguel eta Aitor Alcaide. Franek txapelketa polita jokatu zuen eta laugarren postuan geratu zen; Aitor ere ez zen gaizki ibili eta 21. postuan bukatu zuen.

Euskal Herriko xake jokalaria onenak eta Espainiako Estatu-ko beste horrenbeste batu ziren Durangon, 85 guztira. Garailea Roberto Cifuentes txiletarra izan zen, eta bigarren postuan Oleg Korneev errusiarra geratu zen.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urola-UDA
Preferentea.
Zapatua. 16:00. Zumarraga.
UDA/Almen-Martutene
Ohorezko gazteak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.
UDA-Real Union
Ohorezko infantilak.
Zapatua. 11:00. Ibarra

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 6 Mondra 1
Preferentea.
UDA 1 Elgoibar 1
Ohorezko gazteak.
UDA 2 Union Txiki 1
Lehenengo mailako gazteak.
UDA/Almen 7 Billabona 0
Lehenengo mailako kadeteak.
UDA 5 Oiarzun 0
Bigarren mailako kadeteak.
Touring 1 UDA 1
Ohorezko infantilak.

Almen/UDA 5 Bergara 0
Emakumezkoen kopa.

PILOTA

Debarroko Pilota Txapelketa.
Aretxab. 22-Oñati 9
Seniorrak.

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

JAUSORO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA


Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

ERRETRATUZAHARRA

Ezkontzetara jende ugari joaten zen

Argazkian ikusten den ezkontza 1960. urte inguruan ospatu zuten Arrasateko parrokian. Ondoren, Arrasateko Toki Ona jatetxera joan eta bazkaria egin zuten bertan. Ezkerretik hasita Angelita Ibarzabal, Margari Perez de Mendiguren, Maria Luisa eta Eutiquio bikotea, Mila Ibarzabal eta Mari Tere Etxebarriarteun ditugu. Emaztegaia Burgosko Quintanavides herrikoa zen, baina Aretxabaletara lanera etorritakoa. Senargaia, berriz, kanpokoia zen, eta Mondragoera ikastera joandakoa.

Garai hartako ezkontzak gaur egun ospatzen direnen oso antzekoak ziren. Ehunetik gora gonbidatu elkartzen ziren ezkontzetan, eta gutxi batzuk berrehun izatera ere iristen ziren. Egun berezira jendea oso dotore jantzen zen, eta sarritan Gasteiz aldera joaten ziren beharrezko osagarriak erostera: soinekoak eta kapelak, trajeak eta gorbatak...

Emaztegaiaren soinekoa zuria izaten zen; mende hasierako beltz kolorea baztertuta zegoen dagoeneko.



Familia eta lagunak elkartzen ziren ezkontzetan; eta ondoren denak bazkaltzera joaten ziren. Aretxabaletan, normalean, Taberna Berri jate-txean egiten zituzten eztei-bazkariak. Gonbidatuek kroketak, legatza, oilaskoa, eztei-tarta eta xanpaina dastatzeko aukera izaten zuten.

Bazkaldu ondoren, gonbidatu guztiek dantza egiten zuten orkestraren musikak lagunduta.

Eztei-oparia, orokorrean, bikotearen etxe berrirako osagaiak izaten ziren. Jende gutxi ematen zien dirua, baina horrela izaten zenean, pozik jasotzen zuten oparia ezkonberriek.

Bidaia egiteko orduan, Mallorca aldea aukeratzen zuten gehienetan garai hartako ezkonberriek. Hegazkinen egiten zuten bidaia, eta hamabost egun irauten zuten gutxi gorabehera.

Argazkia: Margari Perez de Mendiguren

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Parrokiak ere izan ditu aldaketak

Poliki-poliki herria aldatzen doa, eta Andre Mariaren Zeruratze parrokiak ere izan ditu hainbat aldaketa. Aurreko aldea, lorategi ingurua, orain urte batzuk txukundu zioten. Parrokia bera, ostera, 2001ean inauguratu zuten guztiz berri eta gero. Bai barrutik, bai kanpotik berri zuten, eta itxura berria eman zioten barrualdeari dagokionean batez ere.



≈ 1960

Parrokiaren aurre aldean lorategiak zeuden orain urte batzuk. Kendu egin zituzten gero, eta jarlekuak jarri.



2004

Barrutik eta kanpotik berri zuten orain urte batzuk; 2001ean inauguratu zuten hain zuzen. Hala ere kanpoko itxura ez zioten asko aldatu.

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*


Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Maritxu
drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

J.J. IRURE
ITURBENTZAN
URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Angelines
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea*

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 26a / 160. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABALET A • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Izartu programan parte hartu nahirik, bere proposamena egin du Udalak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Santa Marina eta Aranburuzabala kaleak urbanizatu; bidegorria egin; lur azpiko edukiontzi gehiago jarri eta soinu-langak ezarri. Udalak Eusko Jaurlaritzari aurkeztuko dion proposamena. Eta proiektu horrek, guztira, 4.367.859 euroko aurrekontua eskatzen du.

Udalak ekipamenduetan gabezia duten herriko txokoak gizarte eta ekonomia mailan biziberritu eta berpizteko dirulaguntza eskatzea adostu zuen martxoaren 18an egindako ezohizko bilkuran. Gutxieneko inbertsioa 2.500.000 eurokoa da, eta egitasmoak gainditu egingen du zenbateko hori.

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Eusko Jaurlaritzaren Izartu programaren bidez diru eskaera egingo dute. Baina dirua jasotzeko baldintza batzuk daude: hirigunean bizi den populazioaren bilakera negatiboa izatea, heziketa maila txikia, lan-merkatua egoera txarrean egotea, etxebizitzetako instalazio eta zerbitzuen maila EAeko batez bestekoa baino txikiagoa izatea eta biztanleko Bar-



Herrian lur azpiko edukiontzi gehiago jarri nahi dituzte, eta egitasmoaren barruan sartu dute.

ne Produktu Gordina EAeko mailarena baino txikiagoa izatea. Betetzen diren baldintzen arabera, Eusko Jaurlaritzak diru kopuru bat edo beste bat ematen du.

Herrian plazatik gorako aldea berritu gura dute, bost baldintzetatik bi betetzen dituelako.

Zerbitzu guztiak berritu gura dituzte Dorleta auzoan; Santa

Marinako 48 etxe diruz lagundu nahi dituzte; Aranburuzabala kalea urbanizatu; bidegorria jarri... Irailerako erantzuna edukitzea espero dute Udalekoek.

Plazatik gorako aldea biziberritu eta berpiztu egin gura du Udalak Izartu programa bidez

Aurreikusten duten inbertsioaren %30 jasotzea espero dute Udaleko ordezkariak

Irailerako Eusko Jaurlaritzak proiektuari buruzko erabakiren bat hartzea espero da



Ogi-mamiak dastagai domekan herriko plazan

Arrasateko Corazon de Encina elkarteak antolatuta, ogi-mamien eguna ospatu zuten domekan herrian. Eskoriatzako plazan Extremadurako jaki tipikoa dastatzeko aukera izan zuten herritarrek. Ogi-mami txikitua berakatzekin batera frijitua eta hirugihar eta piper-gorriekin lagunduta; horrela prestatzen da. Duela zortzi urte hasi zen Arrasateko elkartearen egun hau ospatzen, eta ibarreko hainbat herritan egin dute dagoeneko; bigarrenez herrian. /Z.V.M.

LABUR

Internet bidez Etxebideri buruzko kontsultak

Herrian jende asko dago Etxebide programari lotuta. Orain, bakoitzaren espedientea kontsultatzeko Internet erabili daiteke, webgunea martxan jarri dute eta. Sarearen bitartez, kontsulta mordo egin daitezke: norberaren egoerari buruz, egindako eskaera onartu den... Baina ez da ematen den zerbitzu bakarra. Etxebizitza bat erosi edo alokatzean sortzen diren zailtasun, zalantza eta eragozpeni buruzko aholkuak jaso baitaitezke www.etxebide.info helbidean.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate) ..	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) ..	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) ..	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) ..	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) ..	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz) ..	945 23 20 30
PESA (Arrasate) ..	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate) ..	943 77 10 43
SOS Deiak ..	112

OHARRAK

HITZALDIA

Amuskak antolatuta, eguaztenean, hilak 31, hitzaldi bat egongo da kultura etxean. *Los hijos de la luna* izena duen mintzaldian, Daniel Barandiaranek egingo du berba.

BENIDORMERA BIDAIA

Olazar elkarteak antolatuta, Benidorm aldera irteera egingo da apirilaren 24tik maiatzaren 8ra. Autobus bat joango da herritik, eta 55 pertsonarentzako tokia dago. Oraindik ere geratzen da tokiren bat edo beste. Informazio gehiago nahi izanez gero, elkartera jo interesatuok.

AXTROKIRENAGENDA

JAI BEREZIA

Haurrentzako hitzordua izango da apirilaren 6an, martitzena. Egun horretan, Tortolis ludotekara gerturazten direnek *Jai berezian* parte hartzeko aukera izango dute, Axtrokik antolatuta.

Informazioa eta Komunikazioa ikasteko aukera HUHEZIn

Z.V.M.

Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzan duen fakultateak 2004-2005 ikasturterako eskaintza akademikoaren berri eman du, eta ikasketa berri bat aurkeztu dute: Informazioa eta Komunikazioa. Bestalde, ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte hiru egunerako.

Eskoriatzako Humanitate eta Zientzien Fakultateak datorren ikasturterako programa aurkeztu du, eta ate irekien jardunaldiak prestatu ditu.

ESKAITZA AKADEMIKOA

Betiko Irakasle ikasketak egin nahi dutenek lau esparrutan izena emateko aukera izango dute datorren ikasturtean: Atzerriko Hizkuntza, Hezkuntza Berezia, Heziketa Fisikoa eta Haur Hezkuntza espezialitateak eskainiko dituzte.

Baina eskaintza berririk ere aurkituko dute ikasleek datorren urtean Eskoriatzako fakultatean. Informazioa eta Komunikazioa ikasketa aurkeztu zuen martitzenean HUHEZIn. Hurrengo



Ikasketa berria aurkeztu zuten martitzenean Eskoriatzako fakultatean.

ikasturtetik aurrera hasiko da eskaintzen ikasketa berria. Aurkezpenean, HUHEZiko dekanok Jose Antonio Mendikute, Giza Zientzietako zuzendari Juanjo Otaño eta Gizarte Zientzietako

koordinatzaile Jon Sarasua egon ziren. Hausnarketa luze baten ondorioz antolatu den ikasketa berria da, hurrengo urteetako beharrei erantzuteko pentsatua. "Landu gabeko arloa da, eta bide

interesgarriak eskaintzen ditu", aipatu zuen Sarasuak, "hainbat tokitatik dagoen eskaria asetzeko pentsatua". Sortuko diren profesionalen ahoz eta idatziz komunikatzeko gaitasuna izatea, gizartea ulertu eta irakurtzen jakitea eta informazioa kudeatzeko gai izatea dira, adierazi dutenez, dituzten zenbait helburu. Beraz, praktikek garrantzi handia izango dute ikasketa berri horretan.

Informazioa eta Komunikazioa ikasten dutenek hirugarren urtean Ikus-entzunezko Komunikazioa hautatu eta bigarren mailako zikloa egiteko aukera izango dute.

ATE IREKIEK JARDUNALDIAK

Bestalde, HUHEZIn ate irekien egunak finkatu ditu. Guztira hiru egunean banatu dituzte aipaturako jardunaldiak. Lehenengoa martxoaren 25ean izango da, 18:30ean, fakultateko areto nagusian. Bigarren jardunaldia apirilaren 29an egingo dute, eta hirugarren eta azkena, maiatzaren 13an. Hauetan parte hartu nahi izanez gero, Eskoriatzako Hezkuntza Zientzien Fakultatera deitza beharrezkoa da.



Segurara eta Aubixara joan ziren Ezeizakoak


Luis Ezeiza ikastetxeke laugarren eta seigarren mailetako 30 ikasle Segura eta Aubixa aldean izan ziren aurreko astean. Barnetegietan izan ziren, euskara praktikatzeko. Martxoaren 15etik 18ra joan ziren, eta ez zuten aspertzeko astirik izan: jolastu, ariketak egin... Segurara 17 ikasle joan ziren, eta bertan Mutrikuko beste hamaika gazterekin batu eta giro paregabe ederto pasa zuten elkarrekin. Gainera, eguraldia lagun izan zuten eskoriatzarrek. /Z.V.M.

LABUR

Udalekuetako begirale izateko epea zabalik

Eskoriatzako Udalak antolatuta, uztailean egingo diren udaleku irekietarako zuzendari eta begirale izan nahi dutenentzako deialdia luza du. Interesatuak martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dute curriculumak kultura etxean edo udaletxean. Bete beharreko baldintza batzuk daude: 18 urte beteta izatea eta euskaraz berba egiten eta idazten jakitea. Kontuan hartuko dira, bestalde, begirale titulua izatea, esperientzia, bizitokia...

BEIRALAN




KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Markoztatzea



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ KLINIKA



Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

LABIDEAREN ETA TURISMO BULEGOAREN URTEMUGA

Urtebete beteko da domekan Labidea dendak eta Turismo Bulegoak ateak ireki zituztela

Z.V.M.

Domeka honetan, hilak 28, Labidea dendak eta Turismo Bulegoak urtebete egingo dute. Herria ezagutzera datozenentzat zerbitzu hobea eman nahirik ireki ziren biak. Hala ere, eguneroko erabiltzaileak ere baditu Labideak, herritarrak, alegia.

Labidea dendak eta Turismo Bulegoak urtebete egingo dute aurten. Gatz Museoko proiektuaren barruan dagoen egitasmoa da. Gatzagaren gaineko informazioa banatu eta herriari itxura turistikoa eman nahiak bultzatu zuen Udala bi lokalak irekitzera.

Herriari zerbitzu berri bat eman nahi zion herriko Udalak proiektu horrekin. Hasiera batean museoaren kontuak administrazioak eramaten zituen arren, duela urtebete, Amaia Olabe eta Aitziber Gorosabelen eskuetan geratu zen Labidea eta Turismo Bulegoaren kudeaketa.

Lehen urtemuga betetzear dagoen honetan, balantzea egite-

ko eskatu diogu Aitziberri. "Oso zaila da urtebeteko azterketa egitea, aurretik zerekin konparatzerik ez dugu eta". Edozelan ere, bai herritarren aldetik, eta baita kanpotarrendandik ere harrera ona izan dutela adierazi digu Aitziberrek. "Herria ezagutzera goizean goiz etortzen zirenek ez zuten non egon. Orain, kafea hartzeko, adibidez, hona etor daitezke".

Bestalde, gatzagarrek ere harrera ona egin diotela aipatu du: "Eguneroko bezeroak ditugu Labidean, herritarrak, alegia. Nahiz eta horiek erosketa handiak ezin dituzten egin, premiako kontuak edo ogia erostera etortzen dira, esate baterako".

"Urte ona izan da; bisitari asko eduki ditugu, eta oso pozik geratu dira herriko aberastasunekin"

Jende askoren beharrak asetzeko baliagarri da herriko denda.

MUSEORA BISITAK

Bisitarien kopuruari dagokionez, "gora doa urtetik urtera", adierazi du Gorosabelek. "Esaterako, duela bi aste hogeitertsonako talde bat etorri zen herrira. Ez zuten museo bakarririk ikusi, herriak dituen askotariko aberastasunak erakutsi genizkien: Dorletako Santutegia, herritik pasatzen zen trenbide zaharraren ibilbidea...".

Aurrera begira eskaintza zabaltzeko asmoa dutela adierazi digute kudeatzaileek. "Informazio liburuxkak egiteari beharrezko deritzogu". Bestalde, "museoak funtsean orain arte bezala jarraituko du", nahiz eta urtean zehar hainbat gauza aldatzen dituzten; dendak ere bere horretan jarraituko du. Herria ezagutzera datozen gehienak azkenaldian Donostia aldetik datozela adierazi digu Aitziberrek. "Bizkaiko herri txikietatik ere etortzen dira. Bisitari gutxien Arabatik etortzen da, normalean, euskaltegietatik bidaian".



Inaugurazio eguneko argazkiak ongi erakusten du herritarren harrera ona.

ARTXIBOA



Toki Eder elkarteak batzar orokorra egin zuen

Toki Eder elkarteak batzar orokorra egin zuen pasa den domekan, hilaren 21ean. Leintz Gatzagan egin zuten bilkura. Bileraren bitartez, hiru batzordekide berri sartu ziren elkartearen, eta bi urtez egongo dira kargu horretan: Alberto Altube, Jasone Elkorobarrutia eta Julio García. Horren ondorioz, beste hiru kideri kargua uzteko ordua iritsi zitzaion: Jon Barandiaran, Luis Mari Zubillaga eta Alberto Oñateri. Bazkide gehienak elkartu ziren domekako bileran. / Z.V.M.

LABUR

Askotariko gaiak landu ziren eguneneko bilkuran

Hileko azken egunetan oso bilkura egiten dute herrian, eta atzo ere, horrela egin zuten. Hainbat gai jorratu zituzten atzo arratsaldean Udaletxean. Besteak beste, aurreko akten onespina egin zen; Okondoko baso ustiapenak esleitzeko eta mendi publikoetan hainbat banaketa esleitzeko baliatu zuten atzo arratsaldeko bilera. Udal ordezkariak Debagoieneko Mankomunitateko lurralde antolaketa zerbitzua ere izan zuten mintzagai.

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Aretxagazeta



IRAGANA GOGORATUZ

Medikuntza Debagoiengan

Martitzenean, martxoaren 30ean,
20;30ean

Goitb
Goiena Tebista

**Ikusiko
duzu!**

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa

Goiena
Kommunikazio Zerbitzua

FAGOR

HELDU DA UDABERRIA

Jaunartze erreportajeak

M^o JESUS ARGAZKILARIA
Herriko plaza 10 Aretxabaleta



www.mjargazki.com

Zapatak

ZUBIA OINETAKOAK
Mitarate 14 Aretxabaleta



Vogue betaurrekoak

BEGIENDO OPTIKA
Loramendi 10 Aretxabaleta



Pan con chocolate soinekoa

HAURRAK UMEEN MODA
Lezama zantro komertziala 15 Aretxabaleta



Miranda jantziak

IRIARTE UMEEN MODA
Durana 8 Aretxabaleta



Ory bikiniak

XARMANTA OPARIAK
Gastainadui 21 Eskoriatza



Zuekoak

MARI KARMEN OINETAKOAK
Errekabarren 22 Aretxabaleta

